



2023-2026AN GASTEIZEN IZOZKI SALTOKIAK INSTALATU AHAL IZATEKO JABETZA PUBLIKOA ERABILI ETA USTIATZEKO BAIMENA ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1) XEDEA

Deialdiaren xedea izozkiak saltzeko 2 kiosko eta 11 saltoki-ibilgailu instalatzeko baimenak esleitzea da.

Deialdiak barne hartzen du uztailaren 25ean (Santiago eguna), izozkiak saltzeko 4 baimenen esleipena.

2) KOKALEKUA

Hiriko leku hauetan emango dira izozkiak saltzeko kioskoak eta saltoki-ibilgailuak jartzeko baimenak. Gerora egokitutako eta behar bezala justifikatutako inguruabarririk izatera, Udalak kokapenak aldatzeko eskumena izango du.

Saltokiena:
1. Floridako ibilbidean (erdi aldean).
2. Arriagako parkean.
Denda-ibilgailuena:
1. San Prudentzio hiribidean (San Prudentzioren estatuaren parean).
2. Olarizuko parkean (zolatutako eremuan).
3. Frai Francisco Vitoria ibilbidean (Frai Franciscoren estatuatik gertu).
4. Salburuko parkean (Martxoaren 8aren hiribidetik sartuta, zolatutako eremuan).
5. Zabalgana parkean (Mariturri bulebarrean)
6. Galeoi Parkea (Lakua)
7. Konstituzio plazan
8. Santo Domingo plazan
9. Vicente Goikoetxea kalea
10. Olarizuko bidean (zolatutako eremuan).



11. Jesús Maria Leizaola Plaza
12. Santiago eguna. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka egiten den lekuaren inguruan:
12.1.- Jolastokiaren inguruan
12.2.- Udal agiritegiaren inguruan
12.3- Julio Baroja Kalea/Nieves Cano kalea
12.4- Miguel de Unamuno Hiribidea/Izarduy Komandantea

Edonola ere, instalatu aurretik, Gasteizko Udalaren oniritzia jaso beharko dute kiosko eta saltoki-ibilgailu guztiek.

Era berean, eta deialdian adierazitako denboraldi osoan, eskatzaileek egokitzen jotzen dituzten kokapen berrien proposamenak onartuko dira, betiere erregistro bidez aurkeztuta. Jaso ondoren, eskumena duen sailarekin kontsultatuko da eta kokapena aldatzeko aukeraren berri emango da betiere interesdunen arteko berdintasun eta lehia askearen printzipioekiko errespetua bermatuz.

Uztailaren 25ean (Santiago eguna) izozkiak saltzeko baimenei dagokienez, soilik II. eranskinan adierazitako 4 kokapenak onartuko dira.

3) SALDUKO DEN PRODUKTUAREN EZAUGARRIAK

Izozkien saltokietan saldu ahal izango dira, horiez gain, baita freskagarriak, edari alkoholgabeak eta zizka-mizkak ere. Halakoak egin, maneatu, ontziratu eta salmenta-unitateak banakatzeko moduari dagokionez lege ezarrita dauden baldintza teknikoak eta osasun baldintzak bete beharko dituzte saltzen diren produktuek, eta dagokien osasun erregistroa izan beharko dute.

4) BAIMENAREN IRAUPENA

Baimena lau urterako izango da, 2023-2026, martxoaren 1etik irailaren 30era bitarteko eperako



Uztailaren 25ean (Santiago eguna), 10:00etatik 15:00etara izozkiak saltzeko 4 baimenen esleipena, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka egiten den lekua inguruetan; deialdi honen II. eranskinean adierazten da saltoki horien kokapen zehatza.

Epea amaitzean, saltokiak kendu egin beharko dira bide publikotik, betiere urte bakoitzeko urriko lehen larunbata baino lehen. Baldin eta epe horretan ez bada hala egiten, Gasteizko Udalak egingo du, modu subsidiarioan, hartara behartuta zegoenaren kontura, eta sortutako gastu, kalte eta galerak galdatuko dizkio.

5) ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskaerak **urtarrilaren 19tik otsailaren 1era bitartean** aurkeztu behar dira, bide hautekoren bat baliatuz:

- Aurrez aurre, herritarrei laguntzeko bulegoetako batean.
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoen bitartez: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>
- Posta arruntaz: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25-4. solairua, 01008 Gasteiz, Araba.
- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100.

Eskaera postaz Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen denean posta ziurtatuz egin behar da. Bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta egun horretan bertan jakinarazi beharko dio eskabidea egin duela Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz (comercio@vitoria-gasteiz.org), betiere otsailaren 8aren (barne) aurretik. Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta era frogagarrian identifikatu beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, baliteke eskabidea ezatea.



Saltokia eskuratzeko eskabidea egiten delarik, deialdiaren oinarriak onartzen direla esan nahiko du.

Lizentziak indarrean dauden bitartean ere eskaera berriak onartu ahal izango dira, eta horiek itxaron-zerrenda batean sartuko dira. Kasu honetan, itxarote-zerrendako ordena eskaera udal erregistroan sartu den eguna/ordua/minutua jarraituz zehaztuko da.

6) BALORAZIO IRIZPIDEAK

A.- IBILBIDEA ETA PROFESIONALITASUNA SALMENTA IBILTARIAN IZANDAKO JARDUERAN: 3 PUNTU GEHIENEZ

Eskatzaileak ohikotasunez, legearekin bat eta lanbide gisa burututako honetako salmenta bali-oetsiko da, jarduera burutu duen geografia eremua kontuan hartu gabe. Gehienez ere 3 puntu.

- Eskatzailearen antzintasuna bi urtekoa edo hortik gorakoa bada (EJZren arabera) 3 puntu
- Eskatzailearen antzintasuna bi urtekoa baino gutxiago bada (EJZren arabera) 2 puntu

B.- PRODUKTUAREN KALITATEA: 2 PUNTU GEHIENEZ

- Izozkiak eskuz eginak izatea.....2 puntu

C.- ENPRESAREN TAMAINA: 1 PUNTU GEHIENEZ

- 10 langiletik beherako enpresak (tc2).....1 puntu
- 10 langiletik gorako enpresak (tc2).....0,5 puntu

D.- BESTEAK 1,5 PUNTU GEHIENEZ

- Elikadura-intolerantzien kasuan ere jan daitezkeen produktuen eskaintza...0,5 puntu
- Irisgarritasun-hobekuntzak (agiriaren bitartez egiaztatu behar dira).....0,5 puntu
- Erraz birziklatzeko materialen erabilaren sustapena.....0,5 puntu

Eskaeren balorazio eta ordena 6. puntuan aurreikusitakoaren arabera egingo da. Puntuazio aldetik berdinketa balego, zozketa egingo da.



Eskaintzaileetako bati saltoki bat esleitu ondoren, ezingo zaio besterik esleitu harik eta eskaintzaile guztiei bana esleitu arte.

Itxaron-zerrenda osatuko da deialdian eskatutako betekizunak bete arren, esleipena eskuratu ez duten eskatzaileekin itxaron-zerrendaren hurrenkera 6. oinarrian adierazitako balioespen-irizpideen arabera osatuko

Eskabideak deialdiaren epetik kanpo aurkeztuz gero, eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, indarrean dagoen itxaron zerrendaren amaieran pasatuko dira.

Uztailaren 25ean (Santiago eguna) 10:00etatik 15:00etara izozkiak saltzeko 4 baimenen kasuan (betiere II. eranskinean adierazitako kokapen zehatzetan), 4 eskaintza hoberenei esleituko zaizkie. Berdinketa gertatuz gero, udal erregistroko sarrera zenbakiari erreparatuko zaio, lehentasuna emanez lehenik sartu den eskabideari.

7) NAHITAEZ AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- **Izozkiak saltzeko postuak jartzeko eskabide-orria**, non Gasteizko Udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzako eta deialdi honetako betebeharrak betetzen direla adieraziko baitu.
- Baimena eskatzen duen pertsonaren **nortasun-agiriaren fotokopia**, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, **lan-baimena eta egoitza-baimena** indarrean direlarik, eta atzerritarren arloan legeak dioenarekin bat etorriz.
- Pertsona juridikoen kasuan, eratzeko eskrituren fotokopia; eskatzailearen ordezkatzeko ahalmena jasotzen duen agiria eta Identifikazio Fiskalerako txartelaren fotokopia.
- Kioskoaren edo ibilgailuaren agiri teknikoak eta argazkiak.
- Halakorik baldin bada, indarrean dagoen osasun-baimena edo osasun erregistro zenbakia.

8) ESKABIDEAK BALIOESTEKO ETA LEHENESTEKO AGIRIAK

- EJZ agiria
- Izozkiak eskuz egiteko gaitasunaren agiria.
- TC2 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna.



- Soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria eta enpresaburuaren jarduera-ezaren egiaztatagiria.
- Halakorik dagoenean, 6.D oinarrian adierazitako alderdien aipamen berariazkoa, eta horietako bakoitzaren egiaztatagiriak.

Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izateko baldintza bete beharko da (ofizioz egiaztatuko da) lizentzia berritu ahal izateko.

9) ESLEIPENDUNEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Otsailaren 23tik aurrera, jendaurrean egongo dira esleipendunen zerrendak, **010** argibide telefonoan (**945 161 100** Gasteiztik kanpotik deituz gero) zein udalaren web gunean (www.vitoria-gasteiz.org).

Esleipendunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Gasteizko Udalaren bulego teknikoetan (Terodoro Doublang Margolariaren kalea, 25), **otsailaren 23tik otsailaren 28ra bitartean**:

- Azokan zehar, berorren ondorioz kalte-galerarik sortuko balitz ere, horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza bera.
- Titularraren eta titularkideen argazki bana, agiri tamainakoak.
- Saltzaileek elikadura-higienearen arloan jasotako prestakuntza egiaztatzen duen agiria.
- Titularrari dagozkion Gizarte Segurantzako azken ordainagiriaren fotokopiak, edo dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emanda egotearena.

Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du honako dokumentazioa:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergako salmenta ibiltariaren epigrafeko alta eta bajen ziurtagiria.
- Azokan parte hartzetik sortutako gastuen eta bermearen ordainagiriak ordaindu izanaren egiaztatagiria.

Gainera, epe horretan, ordaingiria eta fidantza ordaindu beharko dute. Ordaintzeko leku eta modu hauek baliatu beharko dituzte:



- Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santan-derren edozein bulegotan, beraiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Doublang Margolariaren kalea, 25, beheko solairua), txeke bidez edo finantza-erakunderen batekin hitzartutako kreditu-txartela baliatuz. Ordutegia: 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak : 010 eta 945 16 11 00.
- Internet bidez, web orri honetan: www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna

Ezetsizat joko da esleipendun suertatu direnek emandako epean beharrezko agiri guztiak aurkezten ez dituztenen eskabidea.

Itxaron zerrenda osatuko da, esleipena eskuratu ez duten eskatzaileekin. Itxaron-zerrendako hurrenkera saltokiak esleitzeko irizpideen arabera erabakiko da. Berdinketa gertatuz gero, aintzat hartuko da eskabideak Erregistro Orokorrean sartzeko data. Hutsik gera daitezkeen saltokiak esleipena itxaron-zerrendako hurrenkeraren arabera egingo da.

10) PREZIO PUBLIKOAK

Saltokiak jartzen direlarik, bide publikoa okupatzeagatiko prezioa –dena delako udal ordenantzan arautua dagoena– ordaindu beharra izango da.

Santiago egunerako lizentzien kasuan, urtero 5,65 €-ko prezio publikoa ordaindu beharko du eskatzaileak lizentzia eskuratu baino lehen

Prezio publiko hori ez da itzuliko eskatzailea agertzen ez bada, arazo pertsonalak edo klimatologikoak direla eta.



11) BERMEA

Eskatzaile esleipendunek **200 €**ko bermea jarri beharko dute saltoki baimendu bakoitzeko. Berme hori bide publikoan eta udal instalazioetan sor litezkeen kalteen aurrean erantzuteko erabiliko da. Erabili beharko ez balitz, denboraldia amaitzean itzuliko da, behin kioskoa, eta instalazio elektrikoko edo bestela instalazioetako elementu guztiak kendu direlarik, eta udal zerbitzu teknikoek ezarritako betebeharrak bete dituela aztertu ondoren.

Santiago egunerako lizentzien kasuan, ez da fidantzarik egongo.

12) LIZENTZIAK JASOTZEKO TOKIA ETA EPEA

Agiriak aurretiaz aurkeztu direlarik Udaletxeko bulego teknikoetan —Teodoro Dublang, 25— **jaso beharko dira** lizentziak, **otsailaren 23tik otsailaren 28ra bitartean** —ordutegia: 8:30etik 14:00etara—. Titularrak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkeztuta —Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia—. Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar Batasunaz kanpokoen kasuan) den fotokopia erakutsita.

13) ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK

Eskatzaile esleipendunek, jarduera dela eta aplikatzekoak zaizkien legezko betebeharrak betetzeaz gain, oinarri hauetan jasotako betekizunen arabera bideratu beharko du jarduera, eta, bereziki, honako hauen arabera:

A) BETEBEHAR OROKORRAK

- Finkatutako tasa ordaindu, adierazten den epean.
- Enpresariari aplikatzekoa zaion araudia bete, bereziki jaki salmenta dela eta aintzat hartu beharrekoak.
- Erantzukizun zibileko aseguru poliza bat kontratatu, 150.000 €tarainoko balizko kalteei aurre egin ahal izateko.



- Jarduerak sortzen dituen gastuak oro (argia, ura eta beste) kontzesioaren hartzailearen kontura izango dira.
- Edozein eratako kartelak edo iragarkiak jartzekotan, Gasteizko Udalaren oniritzia izan beharko da aldez aurretik. Oro har, jendaurreko informazio guztia euskaraz eta erdaraz idatzita jarri beharko da. Prezioak jendaurrean egon behar dira.
- Instalazioak zaintzeko egin behar diren konponketak oro egin, bere kontura, baita erabiltzaileek sortzen dituzten kalteak konpondu ere, eta beharrezkotzat jotzen dituen bestelako konponketa eta hobekuntzak egin.
- Kontzesioa hartzen duen enpresak egunean egon beharko du negozio ustiapenari dagozkion zerga eta lan betebeharrei dagokienez, eta zerbitzua eskaintzeko kontratatzen dituen langileak beraren menpe egongo dira.
- Kontzesioa hartzen duen enpresak solaskide bat izendatu beharko du, eta gutxienez telefonoa eta posta elektronikoa izan beharko ditu, berarekin komunikatu ahal izateko.
- Izozki saltokiak irekitzeko beharrezko diren baimenak eskuratu beharko ditu kontzesio hartzaileak, eta indarrean dauden arauen arabera dagozkion higiene eta osasun bete-kizunak bete.
- Esleipendunaren kontura izango dira baimendutako jarduerak berekin dakartzan langile gastuak eta bestelakoak, baita zerga-kargak ere.
- Izozkiak saltzeko baino ezingo ditu baliatu instalazioak eta eskura jartzen zaizkion elementuak esleipendunak.

B) BIDE PUBLIKOARI BURUZKO BETEBEHARRAK

- Esleipendunaren kontura joango da zehazten diren lekuetan saltokiak instalatzea. Kioskoaren kanpoko aldeak eta inguru guztiak egokituta eta nibelatuta egon beharko du, eta hartunek ezkutuan.
- Saltokien ezaugarriak ingurura egokitu beharko dira, estetikari eta funtzionaltasunari dagokienez. Horrenbestez, baimendutako jarduerara bideratuko diren instalazio desmuntagarrietan Gasteizko irudidun errotulu edo biniloa (esleipendunei horien ezaugarri teknikoak jakinaraziko zaizkie ipini beharko da.
- Ingurura egokitzeko, honako hauek izan beharko dira kontuan:
 - Kanpo aldeko bolak eta bestelako apaingarriak ekidin beharko dira, trazu linealak lehenetsiz.



- Goiko aldean eta alboetako bakoitzean baimenaren xedea azaltzen duen irudi bat agertu beharko da, kanpoaldean jartzeko egoki den material gogorrean.
- Bere instalazioez gain, esleipendunek garbi eta onik zaindu beharko dute erabiltzeko baimena ematen zaien jabari publiko, eta ezingo du utzi kutxa, ontzi, paper edo beste-lako hondakinik haien inguruan. Aitzitik, eguna amaitzean behar den birziklatze eduki-ontzira eramango du sortzen duen hondakin oro, egunaren amaieran espazioa egoera onean utzita.
- Izozkiak saltzeko instalazioek ezin izango dute oinezkoen trafikoa eten, beti ere irisgarritasunari buruzko legeak eta hura garatzeko araudiak oinezkoen ibilbideentzat ezar-tzen dituen arauekin bat etorriz; ildo beretik, gurpil aulkian datorren pertsonari aurrez hurbiltzen uzteko adinakoa izan behar du saltokia. Saltoki bakoitzeko gehienez ere 3 m²-ko azalera hartu ahal izango da bide publikoan, Espazio Publikoaren Zerbitzuko teknikariek finkatuko duten kokaleku zehatzean.
- Baimenaren titularra izango da jarduera baimenduaren ondorioz bide publikoan sor litezkeen kalte-galera guztien arduraduna.
- Ezingo da deus zoruari lotuta atxiki, eta behar bezala babestu beharko da hura.

C) HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK

- Saltokiak zikinkeria, kutsadura edo osasungaiztasun eragileetatik urrun egon beharko dute.
- Saltokiak estaliak izango dira, eguraldi txarretik babestuak, eta kaleko jendea elika-gaiak biltegitatzeko eta manipulatzeko guneetara sartzea galarazteko sistemez hornituak.
- Saltokien zorua bide publikotik isolatuta egongo da, eta erraz garbitu eta desinfektat-zeko modukoa izan behar da.
- Saltokietako tresneria, ekipazio, erakusleihu eta lan egiteko azalera guztia erraz garbi-tu eta desinfektatzeko modukoak izan behar dute.
- Argiztapen-sistemak behar bezala babestu behar dira, hautsiz gero janariak ez daite-zen kutsatu.
- Hozkailuek izozkientzako tenperatura egokia bermatu behar dute (-18^o C izozkientza-ko; 0^o C izotz-edarientzako), nola garraioan, hala salmentan. Hozkailuek kanpotik erraz irakurtzeko moduko termometroez hornituak izango dira.



- Produktuek eta horien kaxa eta ontziek ezin izango dute inoiz lurzorua zuzenean ukitu; elikagaiak kutsatzeko arriskua galarazteko moduko gutxieneko distantzia batean egon beharko dute.
- Elikagaiak ibilgailu egokietan garraiatuko dira saltokietaraino.
- Salgaiak egiteko prozesuan erabilitako substantzien artetik alergia edo intolerantziak eragiten dituzten guztiak adierazi behar dira, ikusteko moduko kartel batean argi adierazita.
- Lanaldietatik kanpo, establezimenduak kanpotik isolatuta egongo dira, halako moduan non kanpoko eragileen (intsektu, karraskari edo bestelako animalien) sarrera galaraziko den.
- Izozkiak ontziratatu gabe saltzea:
- Saltokiaren barruan edateko ur-hornikuntza izan behar dute, harraska edo konketa bitartez, udal sarera lotuta. Garbitzeko tresnez (xaboi likidoa eta paperezko eskuza-piak) hornituta egon beharko dute konketek.
- Hondakin-urak husteko sistema elikagaiak eta inguru garbiak kutsatzeko arriskua galarazteko modukoa izan beharko da, sare nagusira loturiko hodi malguaren zein ura biltzeko gordailu baten bitartez.
- Azido zitriko edo tartariko (% 1,5eko soluzioan) eduki beharko da, zerbitzuko tresneria onik zaintzeko.
- Elikagaiak enpresa baimendunek ekoitziak izango dira.
- Jendaurrean jarritako produktuak (barkillo eta olatak) ontziratuta edo erakusleihu edo beira-arasa baten atzean babestuta babestuta aurkeztuko dira. Hala eskatzen duten produktuak hozteko erakusleihu edo beira-arasatan egon beharko dute, tenperatura egokian.
- Salgaiak egiteko prozesuan erabilitako substantzien artetik alergia edo intolerantziak eragiten dituzten guztiak adierazi behar dira, ikusteko moduko kartel batean argi adierazita.
- Ontziratatu gabeko elikagaiak manipulatzeko dituzten langileek elikadura-higienearen arloko prestakuntza jaso dutela egiaztatu beharko dute.
- Langileek arropa egokia erabili beharko dute, horretarako eta ez beste ezertarako erabiltzekoa, eta aukeran kolore zuri edo argikoa. Langileek higiene-arauak jarraituko



dituzte, nola norberaren eta arropen garbiketan, hala lanerako beharko dituzten tresnengan ere.

- Janariekin erabiliko diren tresnak garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak asmo horretarako propio sortuak izan behar dute, eta elikagaieetatik aparte gorde beharko dira.
- Egunero desinfektatu beharko dira elikagaiekin harremanetan dauden makina eta tresna guztiak.
- Zaborrontzi nahiko izan beharko dituzte, eta aukeran, eskuak erabili gabe ireki daitezkeenak.
- Kontsumitzaileen babesari dagokionez:
- Kontsumitzaileek informazio nahikoa izan beharko dute, bai izozkiak egin diren lantegiaren izen eta helbideaz, bai eta izozki horien ezaugarri eta prezioen gainean.
- Instalazio guztietan adieraziko dira (kanpotik ondo ikusteko moduan) jendaurrean saltzeko prezioak, bai eta nahi duen bezero orok erreklamazio-orriak dituela erabilgarri.

14) KONTROLA ETA EGIAZTAPENA

Gasteizko Udalak edo ordezkatzeko duen erakundeak behar diren kontrol eta ikuskapen ekintzak egingo ditu, lizentzia jaso duten saltokiak behar bezala erabiltzen direla eta horietan bideratzen den jardura ebazpen honetan, kaleko salmenta arautzeko ordenantzaren eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetan xedatutakoarekin bat datorrela bermatze aldera.

15) HUTSEGITEAK ETA ZIGOR ERREGIMENA

Kaleko Salmenta arautzeko Udal Ordenantzaren VI. kapituluko 34. artikuluan adierazten dena izango da arau-hausteen sailkapena.

Udal agintariek, beren zaintza eta kontrol zereginen bitartez, ebazpen honetan jasotako xedapenak, kaleko salmenta arautzeko ordenantzaren finkatutakoak eta jarduerari nahiz saltzen diren produktuei aplikagarri zaizkien gainerako lege-arauak betetzen direla bermatuko dute. Gasteizko Udalak, beharrezko diren kontrol-ekintzak egiteko udala ordezkatzeko duen erakundeak egindako txostenak har ditzake oinarri.



Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio, dela ofizioz, dela eskumena duen organoak edo interesdunen batek hala eskatzen duelarik.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokitzen jotzen duen erabakia hartzeko.

Probidentzia baten bitartez abiaraziko da dossier zigortzailea; jakinaren gainean jarriko dira ustezko arau-hausleak eta, aldi berean, arrazoiak eta inguruabarrak azalduko zaizkie, baita ustez zein arau hautsi duten eta dosierra bideratzeko idazkari eta instruktore nor izendatu diren ere, eta hamabost egun naturaleko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa aplikatzeaz gain, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira arau-hausteak.

16) BAIMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hauek izango dira salmenta-baimena iraungitzeko arrazoiak:

1. Indarraldia bukatzen denean.
2. Titularrak uko egitea, edo hiltzea.
3. Baimena ematekotan bete beharreko baldintzetakoren bat betetzeari uztea.
4. Eskatzen diren tasa edo kanonak ordaintzen ez badira.
5. Kaleko salmenta arautzeko udal ordenantzaren 7. artikuluaaren ildotik baliogabetzea.
6. Baimena galtzea dakarren zigorra ezartzen bada.

17) BAIMENAK GOZATU EZINEKO EGOERAK

Lanengatik edo beste edozein arrazoiengatik baimenaren titularrak hartaz gozatzerik izango ez balu, Udalak egoera jakin hori aztertuko luke, une jakin horretan, baina egoera horrek ez dio baimenaren titularrari kalte-ordainik batere jasotzeko eskubiderik emango.



18) KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULA

Gasteizko Udalaren Ekonomia Sustapena Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sailak eskatzaileei jakinaraziko die haien datu pertsonalak fitzategietan sartuko direla. Datu pertsonalak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016 apirilaren 27ko, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, betetze aldera, udalaren kudeaketa lanak egin ahal izateko, eta horren aurka, aipatu Legeak aitortzen dituen eskubideez baliatu nahi izanez gero, Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera jo daitekeela. Deialdia ebatzi ondoren, Gasteizko Udalaren iragarki-taulan nahiz web-orrian argitaratu ahal izango dira emaitzak.